



JASANGARRITASUNAREN ALDEKO KONPROMISOA

Basaburuko Udalak Klima eta Energiaren aldeko Alkateen Ituna sinatu zuen 2020an. Mundu mailako ekimena da eta haren bitartez tokiko gobernuek berotegi-efektuko gasak (BEG) murrizteko helburuarekin neurriak hartzen dituzte. Horiek Klima eta Energia Jasangarrirako Ekintza Plan (KEJEP) batean biltzen dituzte. Nafarroan planak udalak taldekatuz egin dira eta 53 ekintza proposatzen dituzten 8 ildo estrategikoren inguruan egituratzen dira. Basaburuan energia kontsumoa murrizteko neurriak nabarmendu daitezke: eskolako eta osasun etxeko argiteria aldatu, udal eraikinak hornitzeko eguzki-plakak jarri eta kotxe elektrikoa erosi baitira, besteak beste, eta planaren %14a bete da dagoeneko. Basaburukoarekin, Nafarroan, 170 udalek baino gehiago sinatu dute ituna.

COMPROMISO POR LA SOSTENIBILIDAD

El Ayuntamiento de Basaburua firmó en 2020 el Pacto de las Alcaldías para el Clima y la Energía. La iniciativa se ha puesto en marcha a nivel mundial y el objetivo es que los gobiernos locales se impliquen en la reducción de los gases de efecto invernadero (GEI). Las medidas se recogen en un Plan de Acción para el Clima y la Energía Sostenible (PACES). En Navarra se han elaborado de manera agrupada y las 53 acciones propuestas se estructuran en torno a 8 líneas estratégicas. En Basaburua destacan las destinadas a reducir el consumo energético: el cambio de alumbrado en la escuela y el ambulatorio, la colocación de placas solares y la compra del coche eléctrico, entra otras. Se ha cumplido con el 14% del plan. Junto con Basaburua, más de 170 ayuntamientos han firmado el pacto, en Navarra.



Klima eta Energiaren
aldeko Alkateen Ituna
Nafarroan

EUSKARALDIAN IZENA EMAN DU UDALAK

Maiatzaren 15etik 25era izanen da aurten euskaraldia eta entitateen eta herrien izen ematearen ondoren, honezkero zabalik da norbanakoen izen ematea. Basaburuko Udalak izena eman du eta herritarrak ere animatzen ditu ekimen honetan parte hartu dezaten.

Hizkuntza ohiturak eta euskararen erabilera sustatzeko ariketa sozial gisa jaio zen euskaraldia. Herritarrek, euskaraz ulertu dezaketen edo hitz egin dezaketen zehazten dute ahobizi edo belarriprest txapak jantziz, eta euskaraz aritzeko (edo entzuteko) konpromisoa hartzen dute euskaraldian. Gainera, hizkuntza dinamikak aldatzera bultzatu nahi da, ezezagunekin ere lehenengo hitza euskaraz egitera, adibidez. Antolatzaileek, aurten: "Euskaraldia gaingidituko duen Euskaraldia" nahi dutela adierazi dute eta ez egun jakinetara bakarrik mugatuko dena.



EL AYUNTAMIENTO PARTICIPARÁ EN EUSKARALDIA

Este año Euskaraldia será del 15 al 25 de mayo y después del plazo para que se apuntaran entidades y municipios, es el turno de que lo hagan las personas individualmente. El Ayuntamiento ya lo ha hecho y anima a vecinos y vecinas a participar.

Euskaraldia nació como un experimento para cambiar las costumbres lingüísticas y para impulsar el uso del euskara. La idea es que los y las participantes indiquen mediante una chapa si pueden hablar en euskara o si pueden entenderlo y así tomar el compromiso de hablar (o escuchar) en euskara. Desde Euskaraldia también se quieren cambiar las dinámicas del lenguaje, por ejemplo, animando a que cuando hablemos con desconocidas siempre digamos la primera palabra en euskara. Desde la organización quieren que esta cuarta edición sea "un Euskaraldia que supere Euskaraldia" y que no se limite solo a los días de la dinámica.

EUSKARALDIKO BATZORDEA, BURUBELARRI

Euskaraldia eskualdean bultzatzeko, Basaburuko eta Imozko hainbat herritar bildu dira batzordean. Martxoaren 11n bildu ziren, Apeztegierrin, bederatzi herritar: sei, Basaburukoak; eta, hiru, Imozkoak. Euskaraldian eta aurretik, hainbat ekimen antolatuko dituzte, euskaraz, jakina. Momentuz bakarra konfirmatu dezakegu, Joxe Aldasoreen bakarriketa eskainiko baita maiatzaren 9an, Apeztegierriko ganbaran, 20:00etan. Egon adi datozen asteetan ekimen gehiago iragarriko baitira.

LA COMISIÓN DE EUSKARALDIA, EN MARCHA

Varios vecinos y vecinas de Basaburua e Imotz se han reunido para impulsar Euskaraldia en la zona. La primera comisión la realizaron el 11 de marzo en Apeztegierrri. Participaron nueve personas: seis de Basaburua y tres de Imotz; y van a organizar varias actividades para Euskaraldia. De momento solo podemos confirmar una de ellas: el monólogo de Joxe Aldasoro, el 9 de mayo, en la buhardilla de Apeztegierrri, a las 20:00. Las próximas semanas se anunciarán más.

MARTXOAREN 15ETIK AURRERA, HERRITARREN TXANDA/ A PARTIR DEL 15 DE MARZO, TOCA APUNTARSE:



- Euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz egiten dut uneoro. Kideek euskaraz ulertzen ote duten ez dakidanean lehen hitzak, beti, euskaraz egiten ditut; euskaraz ulertzen badute, euskaraz jarraitzen dut.

Hablo siempre en euskara con todos aquellos que lo entienden. Con aquellos que no sé si entienden euskara, digo las primeras palabras en euskara; y, si comprenden, continúo en euskara.



- Aldiro erabakitzen dut euskaraz noiz eta norekin egin. Agian, beti ez dut euskaraz egingo ulertzen duten guztiekin, baina euskara dakitenek niri euskaraz hitz egitea nahi dut, eta horixe eskatzen diet modu esplizituan.

Decido con quien y cuando hablar en euskara, según el momento. No siempre hablo en euskara con todas las que lo entienden pero las que saben quiero que me hablen en euskara, y se lo pido de manera explícita.

**Izena emateko/
Para apuntarse**



BASABURUKO BTT-AN IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK

300 partaidek eman dezakete izena gehienez eta aurtan ibilbidea aldatuko da hasieran, joan zen urtean arazoak sortu ziren bide lokaztuak ekiditeko. Luzeak 38 kilometro eta 1100 metro desnibela izanen ditu. Motzak, 26 kilometro eta 600 metro desnibela. Aurtengo nobedaderik handiena, ordea, txikiendako BTT-a izanen da. Luzeak 10 kilometro eta 150 metro desnibela; eta, motzak 4 kilometro eta 60 metro desnibela izanen dituzte.

ABIERTA LA INSCRIPCIÓN EN LA BTT DE BASABURUA

Pueden participar 300 personas máximo y este año el recorrido cambiará algo a su inicio para evitar los problemas que originó el barro en la anterior edición. El largo tendrá 38 kilómetros y 1100 metros de desnivel; el corto, 26 kilómetros y 600 metros de desnivel. Pero la mayor novedad será la BTT infantil. La larga tendrá 10 kilómetros y 150 metros de desnivel y la corta 4 kilómetros y 60 metros de desnivel.



AISIALDI HEZITZAILE IZATEKO IKASTAROAK

Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateak, zonaldeko 17 urte edo gehiagoko gazte euskaldunei bideratutako aukera paregabea aurkeztu nahi die. Haur eta gazteen aisialdirako begirale titulu ofiziala lortzeko ikastaroa eskainiko da Larraintzarren. Informazio guztia eskaintzeko, bilera egingen da martxoaren 26an, 18:00etan. Bileran izena emateko idatzi ezubioa@iparmank.eus helbidera.

CURSO DE MONITOR DE TIEMPO LIBRE

La Mancomunidad de Euskara quiere ofrecer una oportunidad inigualable a las y los jóvenes vascoparlantes de 17 años en adelante. Se ofrecerá un curso para conseguir el título oficial de monitor de tiempo libre, en Larraintzar. Para dar toda la información se hará una reunión en la Venta de Larraintzar el 26 de marzo a las 18:00. Para apuntarse a la sesión informativa hay que escribir a ezubioa@iparmank.eus.



UDALETXEKO ETXEBIZITZA ALOKAIUAN

Basaburuko udalak Jauntsaratsen dituen pisuetako bat libre geldituko da, eta, alokairu sozialean eskainiko da. Leihaketa publikoan emakumea eta 30 urte baino gutxiago izatea, seme-alabak edukitzea eta Basaburuan erroldatua izatea lehenetsiko da. Eskaerak apirilaren 7ra bitartean egin daitezke eta baldintzak udal weborrian daude. Pisuak 52,41m² erabilgarri ditu eta prezioa 176,68 eurokoa izanen da hilabeteen.

ALQUILER SOCIAL MUNICIPAL

Uno de los pisos que el Ayuntamiento tiene en Jauntsarats va a quedar libre y se ofrecerá en alquiler social. El concurso público priorizará aquellas candidatas mujeres que tengan menos de 30 años, con menores a su cargo y empadronadas en Basaburua. El plazo para presentar solicitudes acaba el 7 de abril y las condiciones están en la web municipal. El piso tiene 52,41m² utilizables y su precio será de 176,68 euros al mes.

EGUTEGIA / CALENDARIO:

MARTXOA / MARZO						1	2
	3	4	5	6	7	8	9
	10	11	12	13	14	15	16
	17	18	19	20	21	22	23
	24	25	26	27	28	29	30

● AISIALDIKO HEZITZAILEEN IKASTAROAREN AURKEZPENA, 18:00, LARRAINTZARKO BENTA

● BRIGADA MOREEN PRESTAKUNTZA, 11:00, LARRAINTZARKO BENTA